

Enpresaren diru sarrerak ezinbestekoak izango dira zerbitzua eraginkorra eta bideragarria izan dadin. Hauek dira gure zerbitzuak izango dituen diru sarrerak:

- **Bazkide txartela:** Lauargin bazkideak egongo dira eta ordaindu behar izango dute hilabete bakoitzaren lehenengo astean. Txartel horiekin, hilabetean nahi beste aldietan etortzeko aukera izango dute. Asteazkenean zehar burutzen diren ekintzetan, zein, asteburuetan burutuko diren dinamika berezietan parte hartu ahal izango dute.

Bazkideak	20€
-----------	-----

- **Bazkideak ez diren erabiltzaileak:** Bazkideak ez direnak ekintza puntualetan parte hartu ahal izango dute eta horretarako ekintzaren arabera prezio minimo bat ezarriko da. Gainera, ekintza berezietara ere gerturatu ahal izango dira eta ekintzak balio duen prezio zehatza ordaindu beharko dute. Hortaz, itsulapiko bat izango dugu eta hamabost egunean behin edo hilean behin hustu egingo dugu diru hori gordetzeko behar diren gauzetan erabiltzeko.

Lokalera gerturatu egun puntualetan	3€
-------------------------------------	----

- **Txokoa:** Hautatutako lokalak sukaldea duenez etekinak ateratzeko kafetegi zerbitzua ematea gustatuko litzaiguke. Gainera, produktu desberdinak eskainiko ditugu. Hilabete eta urtaroaren arabera produktuak aldatzen joango dira.
Adibidez: Udan izozkiak, euro batera, eta edari hotzak, euro eta erdira, eskuragarri izango ditugu. Neguan aldiz, txokolate beroa, euro batera, eta txurroak, dozena erdia bi eurotara, edukiko ditugu.

Kafeak, infusioak, txokolate beroak, freskagarriak...	1,5€
Etxeko gailetak	1€
Bizkotxo eta bestelako gozokiak,	2€
Pintxoak	1,30€

- **Ostegunetan pintxopote + Bingo musikatua:** Alde batetik, ostegun arratsaldeetan pintxopoterako aukera eskainiko dugu. Honekin batera, giro (atsegina eta alaia) bermatzeko asmoz bingo musikatu gauzatuko dugu. Gainera, sariak hilabetero aldatuko dira.

Pintxo bat eta edari bat	2€
Bingoaren papeleta	1€

Elikadura zerbitzuak aurrera eraman ahal izateko parte-hartzaileen alergiak, intolerantzia, eta bestelakoak kontuan izango ditugu, eta horren arabera, aukerak egokituko eta moldatuko ditugu.

Aurretik aipatutako guztien ordainketak bizum edo eskuz gauzatu behar izango dira.